

DIRU-SARRERAK

Atal honetan gure negozioaren diru sarrerak nolakoak izango diren azalduko dugu. Gure diru sarrera nagusia eskaintzen ditugun zerbitzuak kobratzetik aterako dugu. Gure bezeroei laguntzeagatik, baita zerbitzua ematerakoan sortzen diren gastuak kobratzetik (gasolina edo garraioa).

Orokorrean, bi diru-sarrera mota daude: ordainketa bakarreko diru-sarrerak eta ordainketa errepikariak. Gure negozioa ordainketa bakarra motatakoa izango da.

Horrez gain, enpresa batek diru-sarrerak sortzeko modu ezberdinak dauzka: Aktiboen salmenta; erabileragatiko saria; harpidetzagatiko saria; mailegua, rentinga eta alokairua; lizentziak; broker edo komisio bidezko sariak; publizitatea eta abar. Gure kasuan, erabileragatiko saria erabiliko dugu.